

# BOOBIZI

## Diru iturriak

Finantzaketa leku ezberdinez lortuko genuke. Gure proiektua hasteko *crowdfunding-a* erabiliko dugu; horrela, negozioa martxan jartzeko beharrezkoak ditugun baliabideak lortzeko eta gure enpresa ezagutarazteko asmoa daukagu. *Crowdfunding*-arekin lortutako diruarekin lehenengo bularretakoak ekoizten hasiko ginen. Horrez gain, AECC erakundeak gure partaidea izatea onartzen badu, gure finantzaketa handituko zen, haiek diru zati bat eskainiko zigutelako.

Bazkide bakoitzak 5.000 euro eskainiko ditu, eta horrez gain, Annek duen makineria, 6.000 euroko balioa duena, eskainiko du ere bai. Gainera, hasieran etxean lan egingo dugu; bakarrik guk laurok, beraz, kostuak ez dira hain handiak izango. Ondorioz, aurre-martxan hasteko dugun finantza baliabideak nahikoa direla uste dugu, hala ere, enpresak arrakasta badu, lokal bat alokatu, langileen soldatak ordaintzeko eta lehengai gehiago erosteko mailegu bat eskatuko genuke.

Behin enpresa martxan jarrita, gure salmenten irabaziak gure diru iturri handiena izatea izango litzateke gure hasierako helburua. Nolanahi ere, diru-iturri gehiago izateko eta kapitala irabazteko, kolaborazio batzuk egiten, beste enpresa batzuekin elkarlanean aritzen saiatuko gara.